

EUSKAL PRESO POLITIKOEN ALDIZKARIA

5.zkia 1993.KO MAIATZA 300 pzta.

EUSKAL ASKATU

ARTE!!

Euskal preso politikoen

AURKIBIDEA

EDITORIALEA 4/5
AGIRIAK 6/14
Hamargarren hrrerako martxari agurra 6
Errepresioa eta txantaia nagusi 8
A.A.B. VI.Asanblada Nazionalari 10
Ocaña I kartzelatik 12
Salto del Negrotik 14
KRONOLOGIA 15/29
578 egun. 1991ko urritik 1993ko apirilera 15
578 dias entre la represión y la instrumentalización 26
IRITZIA 30/57
De sus pretensiones a nuestra caracterización y dinamica 30
Cambios de celda 40
Kunda 44
Cincuenta baldosas 48
Martuteneko espetxetik 51
Berriro ere, presook... 54
IDAZLANAK 58/68
Azkena izango ez den saioa 58
Una que quiso ser su amiga 61
Carta urgente para Miguel Hernandez 62
Lau malko, lau izar 64
Aurrera 66
Invierno Rojo, la victoria es nuestra 67

EUSKAL PRESO POLITIKOEN ALDIZKARIA

5.zkia. 1993.eko MAIATZAK

Frantses zein espainiar estatuetan gartzelaraturiko Euskal PresoPolitikoen Kolektiboaren aldizkaria

Lehen argitalpena

15.000 aleko plazaraketa

68 orrialde

EUSKAL PRESO POLITIKOEN ALDIZKARIA 5.zkia 1993.KO MAIATZA 300 pzta.

EDITORIAL

Duela urtebete baino gehiago igaro da azken "BARRUTIK" kaleratu zenetik. Urtebete luze honetan gu gauden kartzeletan gertakariak arintasun handiz jazo dira, eta sarkasmo handiz esan dezakegu ez dela monotonia eta asperdurarako lekurik egon. Gauza asko denak berdin segi dezan.

Zaila da guretzat, eta benetan handigurakoa, gure bizipen guztiak ale honetan azaltzea, kolektiboki eta bakarka bizi izandako sentipenak adieraztea, eta are zailagoa lasaitasun apur bat gozatu ahal izan dugun uneetan (gutxi, tamalez) bururatu zaizkigun pentsamendu guztiak zuei helaraztea.

Ulertuko duzuenez, errealitate honi buruzko komunikazio osoa edukitzea ez da erraza, kartzela-sistemaren barruko eragozpenengatik ezezik, bizi ditugun egoerak hain ugariak izanik guztiak isladatzea ezinezkoa litzatekeelako ere, gure hemengo bizitza betetzen duten sentipenak hain sakonak izanik pareta eta horma hauen hoztasunaren kontrastea apurtzen dutelako.

Gure helburua, guretzat berebizikoa dena isladatzea da, gure bizipen eta identitate kolektiboa, alegia. Identitate kolektibo horretan bizi gara eta identitate kolektibo hori gara; berorretan adierazten dira gure nahiak, hots, gizarte aske eta bidezkoagoa bat bilatzeko konpromezu kolektiboa. Gauza hotz eta estatikoa izan beharrean etengabeko mugimenduan eta aldakuntza ideal horretan gurekin dauden kanpoko adiskideekin hertsiki loturik dagoen kolektiboa. Izateagatik soilik sistema espainiarrentzat arriskutsu bilakatzen den kolektiboa, eta horrexegatik dihardute ekin eta ekin hautsi nahian, errepresioa areagotuz, toxikatuz, manipulatuz, norbanakoari sasi-irteerak eskainiz, erasotuz, mehatxatuz...

Fisikoki sakabanaturik egon arren, izatez bat eginik dagoen kolektiboa da gurea, ez baititugu gure identitate ezaugarriak, egunen batean gu guztiok zuekin aske hegan egingo dugulako itxaropena galdu ez eta galduko ere, eta guztion artean Euskal Herri librea osatzeko hartutako konpromezuak badirauelako.

Estatu frantsez eta espainiarrean gauden euskal preso politikoek osatzen dugun borroka fronte honetatik, EUTSI GOIARI!!!

Hace más de un año del anterior "BARRUTIK", más de un año en el que los acontecimientos, en el interior de las prisiones en los que nos encontramos, se han sucedido con gran rapidez, pudiendo decir, con cierto sarcasmo, que no ha habido lugar a la monotonía, ni al aburrimiento. Muchas cosas para seguir todo igual.

Sería muy difícil por nuestra parte, y ciertamente pretencioso, reflejar en este número todas las vivencias que hemos tenido, todos los sentimientos que de manera colectiva e individual hemos percibido y mucho menos transmitiros todos los pensamientos que han asaltado nuestras mentes en los momentos en que podíamos gozar de una cierta tranquilidad, pocos por cierto.

Como muy fácil comprenderéis mantener una comunicación total sobre esta realidad no es nada fácil, no sólo por las dificultades intrínsecas al sistema carcelario, sino porque el abanico de situaciones que vivimos es tan amplio que sería imposible reflejarlo en su totalidad, porque la intensidad de los sentimientos que recorren nuestra existencia es tan grande que rompe su contraste con la frialdad de estas paredes y muros.

Nuestra finalidad es, como mínimo, intentar reflejar algo que para nosotras y nosotros es vital y es nuestra vivencia e identidad colectiva. Identidad colectiva en la que cada uno de nosotros y nosotras existimos, somos y vivimos; y en la cual se reflejan nuestros anhelos y deseos personales que se proyectan en un compromiso de transformación colectiva en la búsqueda de una sociedad más libre y justa. Un Colectivo que lejos de ser algo frío y estático está en contínuo movimiento e íntimamente unido a compañeros y compañeras en el exterior en ese ideal de transformación. Un Colectivo que precisamente por su existencia es un peligro para el propio sistema español y por ello insisten con todas sus fuerzas en intentar romperlo, agudizando la represión, intoxicando, manipulando, ofreciendo falsas salidas individuales, agrediendo, amenazando...

RIALEA

Un Colectivo que a pesar de estar disgregado físicamente, materialmente se encuentra unido ya que no hemos perdido, ni perderemos nuestras señas de identidad, la esperanza de que un día todos nosotras y nosotros podamos volar libres con vosotras y vosotros; el compromiso que adquirimos de construir entre todas y todos una Euskal Herria libre perdura.

Desde este frente de lucha que constituimos las prisioneras y prisioneros políticos vascos en las cárceles de los Estados francés y español
¡ANIMO!

Hamargarren Herrerako Martxari Agurra

Desde nuestra indefensión y alejamiento, los niveles de organización, coordinación, aspiraciones políticas y capacidad de lucha se siguen manteniendo como así se ha manifestado en la última campaña que se ha realizado en el interior de las prisiones.

La unidad del Colectivo es incuestionable ya que el origen de esta situación se encuentra en nuestro carácter político y sus medidas de reinserción social individual no tienen sentido.

Estatu espainarreko kartzeletan gauden euskal preso politikook adore eta itxaropenezko agurra bidaltzen dizuegu, herri subiranoa izanez baino ez dugulakoan emakume eta gizon aske eta solidariz osaturiko mundua eraikitzen laguntzea lortuko.

Gauza ugari gertatu dira asteotan, baina orain arte genekienaren ezberdina ekarri duenik bat ere ez. Paper orriak bete, saio eta irudiak emititu eta ordu luzez grabatu dituzte gure abotsak; mintzo izan dira, oihu egin eta hitz merkeak bota dituzte; baina egitate guzti hauetan bada nabarmentzeko zerbait: ez digute idazten utzi, ez digute elkarrizketarik egin, ez digute hitz egiten uzten, gu isilarazten ahalegindu dira eta gure ingurukoengandik, gero eta nabarmenkiago, isolatzen saiatzen segitzen dute.

Haiek gutaz mintzo dira, gure egoera aztertzen dute baina, aldi berean, ezkutatu egiten dute erakustearen beldur direlako. Gezur handi eta borobil bat asmatu dute, eta etengabe zabaldu eta errepikatzen dute, horrela, agian, errealitate bihur daitekelako ustean. Edozer euren porrota onartzea baino; edozer, gauden egoeran gaudela ere berriro garaitu eta garaitzen ari garela onartzea baino. Non daude, bestela, sakabanaketa politikaren lorpenak?, non dago gure Kolektiboaren banaketa?, nola esan dezakete gure kide batzuk, une horretan erabaki kolektibo baten aldeko borrokan zeudenak, damutu egin direla eta gainera preso zeuden ultraeskuindarren maila berean jarri? Izan ere, euren gezurrak ondo asmatzen ere ez dakite eta.

Guk bagenekien guzti hori gerta zitekeena; horrelaxe adierazi genuen 1991ko apirilaren 18ko komunikatuan eta presook Euskadin biltzeko gure borrokari ekin genion egun berean, 1991ko irailaren 30ean, hain zuzen. Egoera argi dago gure ustez: bitarteko guzti horiek erabiltzeak ageriko errealitatea ezkutatzea beste xederik ez dauka. Izan ere, gure babesgabetasun eta urruntze egoeran ere antolakuntza, koordinaketa, helburu politiko eta borrokarako gaitasunak beren horretan diraute, kartzelen barruan burutu den azken kanpainan adierazi denez, bai halaber gure herriarekiko lotura eta berorren mobilizapen eta laguntzak ere.

Itsu daude; kolektiboaren batasuna ukaezinezkoa da, egoera honen sorburua gure izaera politikoa delako, eta banaka gizarteratzeko haien neurriek

Ellos hablan sobre nosotros, analizan nuestra realidad, pero a la vez la ocultan porque tienen miedo a mostrarla; todo menos admitir que a pesar de las condiciones en las que nos encontramos hemos vuelto a vencer. Y sino ¿dónde están los frutos de su política de dispersión? ¿dónde está la división de nuestro Colectivo?

ez daukate zentzurik, ez baitaukagu gureak ez diren eta, herri libre eta subirano gisa daukagun nortasuna ezabatu nahi duten gizarte eta sistema politikoan gizarteratzeko asmorik.

Itsu daude, hartzen ditugun borroka bideak ez baititugu geuk erabakitzen, gure herriari eskubidez dagokion Subiranotasunerako helburu politikoak burutu eta aintzatespenerako bitartekoak izan ala ez izatearen araberakoak dira. Gobernu espainolak bere hertsikeria horretan iraun eta gatazka konpontzeko neurri politikorik artikulatzen ez den artean, borroka era guztietako bidezkotasuna ukaezina da eta erantzunkizuna elkarrizketarako eta Negoziazio politikarako bideak ixten dituenarena da.

Gure herriari eta Estatu espainiarreko Herriei beren beregiko deia egiten diegu adi egon daitezen. Egon litezken banakako klaudikazio kasuak handietsi eta orokorrak direlakotzat aurkeztuz egin ditzaketen toxikazio eta manipulazio jukutriei adi hain zuzen, eta batez ere, etsipen jarrera batetik, bere azkenetan egonik ere jarrerak alderantzikatuz, hipokresia, gezurra eta ustelkeria egia absolututzat aurkeztuz errealitatea bestelakotzen ahalegintzen denaren amarruan ez erortzeko adi.

Eta batik bat orain arte bezala tinko jarraitzeko deia luzatzen dizuegu, zapaltzen gaituen etsaiaren amarruei kasurik ez egiteko, jokoan dagoena gure esistentzia bera baino zerbait gehiago dela kontutan hartuz, gure herriaren geroa da eta!

Berriro ere adierazi nahi dizuegu sekula ez dugula etsiko, borroka garrantzitsu bat irabazi dugula eta aurrera goazela, Euskadi Aske, Solidari eta Bakean eraikitzeko bizitza eta askatasunaren alde borrokatzen baikara.

Gora Euskadi Askatua!
Jo ta ke irabazi arte!

1991eko abendua

Mientras el Gobierno español persista en su cerrazón y no se articulen medidas políticas de resolución del conflicto la legitimidad de todas las formas de lucha es incuestionable y la responsabilidad sólo puede recaer en quien cierra las vías del diálogo y de la Negociación Política.

Atentos a posibles maniobras de intoxicación y manipulación que puedan hacer, magnificando casos individuales de claudicación que puedan existir, planteándolos como tónica general.

Gartzeletan errepresioa eta txantaia dira nagusi

Gobernu espainiarrak, PNVkideen nahikeriaz, areagotu egin ditu azken hilabeteotan euskal preso politikoen kontrako neurri errepresiboak. Horrek zerbait adierazten badu, dena den, euren porrota da; gartzelatan bideratu nahi zuten politikaren erabateko porrota, alegia. Espetxean preso, babesik gabe eta euren esku gaudelako, uste zuten gu makurreraziz garaipen xamurra lortuko zutela eta, berriro ere, huts egin dute.

Aún presos, aislados, seguimos manteniendo firme la lucha por la soberanía nacional de Euskal Herria.

Presook osatzen dugun kolektiboak urria, azaroa eta abendua bitartean antolatu eta garatutako burrukaldi tinkoak, euskal gizartearen sektore gero eta zabalagoek erakutsi duten elkartasunak eta gorde izan dugun koherentzia politikoak ageri agerian utzi du porrota hori. Hain izan da larria egokitu zaien urdurikeria, gure kolektiboaren kontrako erasoak eta errepresioa areagotu dezaten, edozertarako baimendu dituztela gartzelako borreroak.

Etengabeko gartzela aldaketak, presondegietara sartzerakoan jasandako jipoiak, ziega aldaketak, isolamendua, erasoak, komunikazioaren murrizketak, gutunena, paketeak, lagunen bisitaldiak, gurekin hitzegiteagatik preso sozialei egindako mehatxuak... eta abar luzea; ikusiaz, gainera, gure aldetik ezein eskubide gauzatu nahi izateak, berdin dio eskubiderik oinarrizkoena bada ere, "Estatuaren segurtasunareko arriskutsu"tzat hartzen dela. Irrigarria benetan.

Zentzu horretan, Ceutan gertatutakoa ez da kasualitatez izan, ez eta une honetan bertan Salto del Negro gartzelan suertatzen ari dena ere. Badu guzti honek zentzurik, preso bagaude ere, isolaturik, tinko eusten bait diogu gure herriaren, Euskal Herriaren, Nazio Subiranotasunaren aldeko burrukari.

Baina ez hori bakarrik! Euren paranoia hain gradu altura heldu da, Dirección General de Instituciones Penitenciarias deritzan egitura -beraren buru denaren bitartez batzutan eta gartzeletako zuzendarien bidez besteetan- gartzelaz gartzela ate joka aritu dela, preso gauden euskal militanteokin tratu merkeak egin nahiz: jasan genezakeen eraso errepresiboa leundu eta gainetik kentzeko, eurek eskeinitako baldintza onuragarriak eta "reinserción penitenciaria" delakoa hori geureak egita besterik ez genuen. Horixe gertatu da Martutenen, Burgosen, Langraitzen, Ceutan... eta beste hainbat lekutan.

Nos negamos a aceptar aquellos beneficios penitenciarios que supongan la sumisión total, la humillación permanente y la vejación continua; la insolidaridad entre los presos, el silencio ante las agresiones, el chivateo y compadreo frente al resto.

Baina, zelako baldintza onuragarriak? Jakin beza Asunción jaunak euskal preso politikoen kolektiboa osatzen dugun gizon eta emakume guztiok hartutako erabakia dela geureak egitea eta erreibindikatzea legez dagozkigun eskubide guztiak, salbuespenak salbu. Ez bait ditugu inoiz ontzat hartuko presoa zure gisako borrero baten nahikeriaren edo naguskeriaren esku utziko duen inolako neurririk. Gurekin jolasean ibil zaitezten ez dugu onetsiko: Gaur bai, bihar ez, "honi bai, nik neuk nahi dudalako" eta "honi, berriz, ez nahi ez dudalako"... horrelakorik ez dugu admitituko.

Ez dugu, Asunción jauna, erabateko apalkeriara, xumekeriara edo mantsokeriara behartuko gaituen neurririk sekulan onartuko. Ez, ez dugu gogoko umilazio iraunkorra, zure gartzelarien iseka etengabekoa. Eskubide horiek eskuratu ahal izateko beraienganako gure obedientzia erabatekoa beharko du izan eta horrelakorik ez dugu nahi. Ez ditugu gureak egingo neurri onuragarri horiek baldin eta, ordaina, preso gaudenon arteko elkartasun eza bada, eraso eta naguskerien aurreko ixilkeria bada, gainontzeko presoekiko saldukeria bada...

Ez dugu, ez, baldintzarik onuragarriena ere ontzat hartuko horrek gartzela geurea egitera behartzen bagaitu, presoaren bergizarteratzea lortzeko bitartekoa gartzela dela onartzera behartzen bagaitu. Ondo dakigu guk zein ustela eta suntsitzailea den presondegia.

Baina, zeri deitzen diozue "reinserción penitenciaria"? Gu preso politikoak garen legez, gure herrian gizarteraturik gaude oso, gure herriaren barne sustraietan. Asunción jauna, zuk ulertuko ez duzun arren, gure herria maite dugulako gaude preso; lapurtu

¿Qué confianza puede tener nuestro Pueblo en alguien que pone su dignidad en manos de su opresor, mendigando sus "beneficios"?

¿Cómo puede creerse que alguien pueda ser solidario con la lucha de su pueblo cuando es egoista e insolidario con sus compañeros y compañeras?

zaizkion eskubideak berreskuratu naihan burrukatzegatik gauzkazu preso. Eskeintzen zaigun ustezko bergizarteratze hori damuketa hutsa da; Euskal Herriak pairatzen duen zapalkuntza nazionala ekidin nahian egin dugun burrukaz damutu gaitezen eskatzen zaigu.

Asunción jauna: Gauza bakoitzari, dagokion izena. Banakako tratua norberekeriaren eta elkartasun ezaren bizkortzea besterik ez da; ustezko neurri onuragarri horiek, zure Departamentuaren eta Erregimen Junten naguskeriari lotutako sumisioa, umilazioa eta txantaia dira, ez besterik. Eskubiderik oinarrizkoenak ere ukatzen zaizkigunean, "reinserción penitenciaria" izendatu duzuen hori damuketa da; Euskal Herriak pairatzen duen injustizia gainditzeko gogoaren damuketa, ez besterik.

Ulergarria egiten zaigu, bai, Kolektiboa euren kabuz utzi zuten Isidro Etxabe eta Jon Urrutia bezalako burrukalari-ohi eta burkide-ohiek planteamenduon amua irenstea. Euren egoismoak, elkartasun ezak eta hondamen pertsonalak egun bizi duten umilazio eta sumisio egoera horretara eraman ditu. Gobernu espainiarraren eta beraren zerbitzuko hainbat komunidabideen morroi bilakatu dira bi horiek. Eurek jakingo dute zertan ari diren! Jakin beharko lukete baina, lortu dezaketen guztia, baita opari gisa jaso ditzaketen "mozkinak" ere, gure kolektiboak erakutsi duen koherentzia eta burruka politikoaren ondorio direla.

Baina, inor ez dadila engaina! Ez dezala inork politikoki mozorroztu norberaren hondamen pertsonala besterik ez dena. Guk horrela ulertzen ditugu gauzak eta, zentzu horretan, salatu egin nahi ditugu Gobernu espainiarra eta PNV eurena, eta ez beste inorena, izango baita Etxabe eta Urrutiaren gaineko presioak, txantaiak eta erabilpen politikoak eurengan sor dezaketen ondorio psikologiko larrien erantzunkizun osoa.

Gartzela gogorra da, bai, baina are gogorragoa da gure herriaren Nazio Askapen prozesua. Batzuk bidean geratu dira betirako: Goikoetxea, Joseba Asensio, Krakas, Josu Retolaza, Lopetegi... Baina gurekin darraite geure bihotzetan. Baina ez dugu inoiz onartuko zapaltzaileen esku -berdin dio gartzelari diren ala ez_ euren bizitza jartzen dutenen saldukeria. Ba aldago gure gartzelariek ezer, ezertxo ere, musutruk emango digutenik uste duenik? Gure duintasunak ez du preziorik, guztiok nahi dugu libre izan, baina ondo dakigu gure askatasunaren gainetik dagoela gure herriaren duintasuna, jasaten duen zapalkuntzaren kontrako burruka, dagozkion eskubideak eta nortasun nazionala aldarrikatzea, Euskal Herriaren burujabetasuna lortzea...

Zelako konfidantza izan dezake gure herriak bere duintasuna ustezko "etekin" batzuren mesedetan zapaltzaileen esku uzten dutenengan? Guztiok nahi dugu gartzelatik atera, baina duintasun osoz, norberekeriaren gainetik bere herriaren interesak kontsekuenteki defenditzen dituenaren harrotasunaz. Eta horrek, ez dezagun ahaztu, irakurketa bakarra du une honetan: Elkartasunik gabe, norberak bila ditzakeen aterabideen gainetik dinamika kolektiboa jartzea. Zelan ulertu daiteke inor solidario izan daitekeenik bere herriaren burrukarekiko, berekoia eta intsolidarioa denean bere burkideekiko?

Berriro okertu dira gure zapaltzaile espainiarrak eta euren laguntzale baskongado diren PNVkideak. Ez gaituzte makurreraziko, ez eta gure herriaren Nazio Askapen prozesutik aldenduko, gure kontrako neurri errepresiboak areagotuz edo "etekin indibidual"en amu eta txantaiekin. Biak bait dira txanpon bakarraren alde ezberdinak. Bide horrekin segituz gero lortuko duten bakarra gure herriak bizi duen gatazka politiko eta biolentoa luzatzea eta mingarriagoa egitea izango da. Justizian oinarritutako bakeak bide bakarra du: Euskal Herriaren subiranotasuna eta dagokion lurraldekotasuna onartzea. Eskubide horiek lortu daitezen eta bakea errealitate bilaka dadin, elkarrizketa eta Negoziazio Politikoa dira bitarteko bermagarri bakarrak.

1993ko otsaila.

Como prisioneros políticos nos consideramos plenamente reinsertados en nuestro pueblo; la reinserción penitenciaria no es más que el arrepentimiento del ideal de transformación de la injusta situación que sufre Euskal Herria.

El egoísmo, insolidaridad y derrota personal ha llevado a nuestros ex-compañeros a esa situación de sumisión, humillación y utilización política por parte del Gobierno español. Que nadie trate de situar en clave política lo que no es más que una derrota humana y personal.

Amnistiaren Aldeko Batzordeen VI. Asanblada Nazionalari

Estatu frantses eta espainiarreko kartzeletan gauden euskal preso politikoon Kolektiboak gure agurra, animoa eta aintzatespena helarazi nahi dizkie gure Herriaren aurkako errepresio-urte luze hauetan gure nazio kontzientzia deuseztatu, gure Herri nortasuna suntsitu eta bake eta askatasunean bizi eta gara gaitezen eragotzi nahi digun sistema zapaltzailearen aurka borrokatu duten eta borrokatzen ari diren gizon eta emakumeei.

Gure Herriaren erraietatik sortutako herri-Erakunde baten Asanblada makurtaraziko ez gaituztelako adierazgarririk nabarmenena eta gure askatasunaren aldeko borrokan bizirik diraugulako bermea da; aske izango garela eta gure etorkizuna eta gure historia osatzen besarkada bero batean bat egingo dugulako konfidantza daukagulako.

Zuenganako konfidantzaren adierazgarri garbiena hauxe da: Herri osoari, oraingoan ere, zuen bitartez zuzentzen gatzaizkiola, zuen lanaren ageriko aintzatespen gisa.

Se equivocaron quienes pensaron que desde una perspectiva de dispersión y alejamiento físico de nuestro Pueblo, iba a desaparecer nuestra identidad colectiva.

Une hauetan kartzela barruan jasaten ari garen egoera larria (jipoiak, eskubide urraketa, lagunak suntsitzeko ahalegina, presioa, xantaia, toxikazioa...), kartzela barrutik, Herri osoarekin, gure nazio subiranotasun eta gizarte askapenaren alde borrokan segitzeko gure erabakiaren aurrean Estatu espainiar eta frantsesak porrot egin dutelako adierazgarria da.

Gure Herritik fisikoki urrunduz eta gu sakabanatuz gure identitate kolektiboa desagertaraziko zutela pentsatu zutenak okertu egin ziren. Beren errepresio-ikuspegitik ez baitute ulertzen eta ez eta ulertuko ere gu kolektibo egiten gaituena ez dela egun preso egotea, gure Herriaren askapenerako prozesuan konprometituriko emakume eta gizon izatea baizik, eta gauden tokian gaudela ere, egoera edozein izanik ere, konpromezu hori era desberdinetan gauzatuko dela, helburua erdietsi arte. Ez dute ulertzen eta ez dute inoiz ere ulertuko kartzela ezberdinetan gaudelarik ez garela militante preso soilak, gure Herriko beste borroka guztiekin sintonia eta lotura osoz borrokan dagoen kartzela-frontea baizik; gure Herri, hizkuntza, ekologia e.a.en aldeko borroka gure borroka dela; gazte, emakume, langile eta beste edozein arlo zapaldu edo zigorturen borroka gure borroka dela, hala nola, gure Herriaren industri eraispenaren aurkako borroka edo drogamenpekotasunen aurkakoa ere.

No entienden ni entenderán nunca que desde las diferentes prisiones no constituimos un frente de militantes presos sin más, sino un frente de cárceles en lucha en total sintonía y relación con las diferentes luchas que desarrolla nuestro pueblo.

Okertu egin ziren eta halaxe segituko dute, gure Herriak gobernu espainiar eta frantsesak (zenbait alderdi erregionalistaren laguntzaz, PNV esaterako) jasanarazten diguten nazio zapalkuntzaren aurka diharduen bitartean, guk tinko eutsiko diogulako Kolektibo Politiko izaerari gure Herriaren

La expresión más clara de nuestra confianza en vosotras y vosotros se concreta en el hecho de que nos dirigimos al conjunto de nuestro Pueblo, también en esta ocasión, a través vuestro en un claro reconocimiento de vuestra labor.

askapenerako borrokan, garatzen diren borroka guztiei atxekituz eta elkartuz eta Estatu espainiar eta frantseseko kartzela-fronte bakarrean antolatuz.

Gure Kolektiboa suntsitu nahi horretan (askapen prozesu osoa suntsitzeko bitarteko gisa) gobernu bien porrotaren ikuspegi horretan soilik kokatu behar ditugu kartzeletako azken gertakariak eta birgizarteratze proposamenari emandako hutsaren ondoko erantzuna, nahiz eta lagun batzuk berton erori diren. Horren adierazgarri kasu hauei ematen dieten gehiegizko garrantzia da: Azkoitirekin egin nahi zuten maliobraren porrota, Mamarruren estradizioa, Txikierdiren lekualdaketaz egindako toxikazio ahalegin irrigarria, Barne eta Justizia Ministerio espainiar eta frantsesaren ordezkariek gutako batzuei kartzelan egindako bisitak edo Salto del Negron jasaten ari garen egoera larria.

Okerreko bidea hartu dute. Eurek "euskal arazoa" deitzen dutena benetan konpondu nahi badute, konponbidea ez da militar/errepresio bidetik etorriko, gure nazio nortasuna aintzatestea eta gure nazio subiranotasuna (Herri ororen eskubide demokratikoa) gauzatzea ahalbideratuko duten neurri politikoen bidez baizik, eta prozesu hori bermatuko duen bitarteko bakarra Negoziazio Politikoa da.

Guk badakigu jasaten ari garen egoera larri hau Herria arlo guztietan (soziala, kulturala, ekonomikoa eta politikoa) jasaten ari den zigorraren parekoa dela eta egoera hau askapen osorako prozesuan aurrea egiteko gai garen hein berean gainditukо dugula; batez ere, Estatu espainiar eta frantsesa ekonomi krisialdi larrian eta desegonkortasun politiko sakonean dauden honetan, egoera horretatik irteten, PNV bezalako alderdiek eskaintzen dieten aldekotasun inmoralak berak ere ez baititu lagunduko.

Aske izan nahi duen Herri baten borondate tinkoak eta egoera larri honi aurre egiteko adore eta ausardiak baino ez dute hau aldatuko. Behin betiko gauzatuko dugu euskal hiritarroi nazio eraikuntza eta gizarte askapen prozesuak garatzea ahalbideratuko digun errealitatea, non Amnistia, amaieratzat Euskadi Libre eta Baketsua edukiko duen gatazka politikoari konponbide politikoa emateko borondatearen adierazgarri izango den.

Eutsi eta aurrera!!

JO TA KE!!
GORA EUSKADI ASKATUA!

1992ko azaroa

Solo desde la perspectiva de derrota, de los Gobiernos español y francés, se entiende la sobredimensión que realizan de la maniobra fracasada con Azkoiti, la extradición de Mamarru, el rídiculo intento de intoxicación con el traslado de Txikierdi, las visitas de representantes de Interior y Justicia españoles y franceses a algunos de nosotros o la grave situación que estamos viviendo en Salto del Negro.

Ocaña-I kartzelatik Euskal Herriari:

¿Cómo puede, el PNV, tener la cara tan dura de querer dar la imagen pública de un total desconocimiento de la situación carcelaria cuando es el máximo responsable de la misma? ¿Cómo puede ser el PNV tan hipócrita?

La postura farisea del PNV el único objetivo que persigue es el chantaje puro y duro, entendido en términos de reinserción-arrepentimiento.

1989 aldera, euskal preso politikoen sakabanaketa sistematikoan oinarritutako politika ezartzen hasi zenetik, zer-nolako jarrera eduki du Eusko Alderdi Jeltzaleak (PNVk) SENIDEAK, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, e.a.ek behin eta berriro salatu dituzten gure egoera eta bizi-baldintzei dagokienez?

PNVk ezer egin ez duela esango bagenu gezurretan arituko ginateke. Izan ere, gure egoera behin ere ez salatzeaz gain, alde batetik, bere eskuan eduki dituen baliabide guztiak erabili ditu gure herriari gure kolektiboaren kartzela-egoeraren berri aldrebestua emateko. Eta horrez gain, are larriagoa dena, PNV euskal preso politikoen Kolektiboaren sakabanaketa politikaren tajuketan Gobernu espainiarraren Barne Ministerioaren lagunkide otzana delarik, baldintzarik gabeko laguntza etengabe eta hazkorra eskaini dio aipatu politika horri: gure giza eskubideak ukatzen dituen zapalketa eta suntsiketa politikari, alegia.

Errealitatea ikusirik, susmagarria bezain lotsagarria da orain PNVko zenbait pertsonak, gure kideen egoera eta bizi-baldintzengatiko ustezko interesaren atxakia erabiliz, hainbat espetxetarako bisitak egin izana. Nola eduki dezake PNVk halako kopeta gure kideen kartzela-egoeraren berririk ez edukitzearen plantak eginez, bera erantzule nagusia delarik? Nola izan daiteke PNV horren gezurtia?

Gure ustez, PNVren jarrera fariseo hori Gobernu espainiarrekin bat tajututako maliobraren ondorioa besterik ez da, gure bizi eta duintasuna kolokan jarriz birgizarteratze/damuaren bidezko txantaia baino lortu nahi ez duena.

Susmagarria da, halaber, SENIDEAK eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek Vascongadaseko zein Nafarroako Legebiltzarreko Giza Eskubideen aldeko Batzordeengana Salto del Negro, Puerto, Almeria, eta beste espetxe batzuetan gure kideek jasaten zituzten gose greba, txapeo, eta antzerako egoeren berri eska zezaten jo zutenean aipatu batzordeek jaramonik ere ez egitea, ez eta

Cuál va a ser el coste físico y mental que vamos a tener que pagar para que al fin reconozcais que habeis fracasado en vuestra política asesina.

¿Cuántos compañeros más deberán pagar con su vida por mantener su dignidad?

¿Cuántos familiares más tendrán que dejar su vida en el intento de hacernos llegar su cariño y solidaridad?

sentiberatasunik azalekoena agertu ere. Non zegoen orduan PNV? Eta orain, Cáceres II espetxean gure kideak nozitzen ari diren gose greba dela eta, zergatik ez dira bertara joan Kolektiboaren egoera ezagutzeko horren kezkaturik baldin badaude?

Argi dago dagoeneko PNVk ez duela inor ere engainatzen. Jakin badakigu PNVk gure kolektiboa zatikatzeko egiten dituen ahaleginetako beste bat besterik ez dela, euskal preso politikoak eta beren ingururik hurbilenaren (senide, lagunak, e.a.) arteko harremanak nahasi eta oztopatzekoa, gure kolektiboaren izaera politiko hutsa hutsaltzekoa eta, arestikoena, justizia espainiar antidemokratiko eta arbuiagarriaren aurrean babesgabe utzi nahian gure abokatu defendatzaileak kriminaltzekoa bezain jukutria zikina besterik ez.

¿Dónde estaba/está el PNV cuando las huelgas de hambre, txapeos,... de Salto del Negro, Puerto, Almería, Cáceres-II?

Baina, norainoko kalte fisiko eta psikikoa jasan beharko dugu euskal preso politikook, zeuek erauki esan eta zeuen politika asasinoak porrot egin duela onar dezazuen arte? Zenbat kide presok ordaindu behar du bere biziaz oraindik (azkena Mikel Zalakain izan zen) bere duintasuna defendatzearren? Zenbat senidek galdu beharko du bizia bere maitasun eta elkartasuna helarazteko saioan?

El empeño que tiene el PNV de dividir nuestro Colectivo no es más que una sucia maniobra unida a otras.

PNVri bere historia osoan behingoz zintzoa izan dadin eskatu besterik ez dugu nahi, eta benetan euskal preso politikoen Kolektiboa jasaten ari den egoera sortarazi duten kariak benetan konpondu nahi baditu, preso bilakatu gaituen helburua hots, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko daukan eskubidea aintzat hartu eta berorren alde borroka dezan, Kolektibo garen aldetik egiten dugun erreibindikazioa, Presoak Euskadira!, bere eginez.

Euskal preso politikoek.

1993ko otsailak 13.

Salto del Negrotik Euskal Herriari:

Somos conscientes de que nuestra condición de rehenes políticos nos va a hacer pasar por situaciones aún más duras si cabe. De hecho el ensañamiento de la DGIP con determinados miembros del Colectivo roza la locura.

Que tengan bien presente el PSOE, PNV,... que aún dispersados por los diferentes Estados y acosados de todas las maneras posibles nuestro Colectivo sigue apostando por la Negociación Política y que ese es el único marco donde se pondrá el verdadero camino hacia la liberación de nuestro pueblo.

Berriro ere eta aurreko gose greba amaitu genuenetik jasaten ari garen jazarpen politikaren aurrean, El Salto del Negron gauden euskal preso politikook gose grebari ekin beharrean aurkitu gara (aurtengo hirugarrena) joan den hilaren 8tik gaur arte (hilak 5).

Geroztik ezarri zaigun politika erdietsitako lorpenak nori eman eta nori ez hautatzea izan da, honekin batera zehapen ugari eta beraien nahien arabera egindako araketa integralen (biluzik egiten direnak) areagotzea nabarmendu da; eraso honen burua, torturatzaile ezaguna eta Zerbitzu Burua den Francisco Javier Lopez Garcia de Vinueza da.

Gure bizi-baldintzen narriadura honen aurrean Francisco Sanz Garcia (Kartzelaren zuzendaria), Gaspar Mene (mediku zuzendariordea eta aurreko negoziazioetan egondakoa) eta Kartzela Jagotzarako Epailea den Miguel Pascual De Rimelque Herrerorengana jo genuen, baina erantzun bakartzat erabateko ixilkeria eta inhibizioa baino ez genituen lortu.

Gose grebaren hiru eta laugarren astean DGIPkoek trikimailu berria erabili zuten, botere hutsunea eragitea alegia (Zuzendari aldaketa); hauen helburu bakarra berriro negoziatu behar ez izan eta urteko hirugarren aldiz akordioak ez betetzeak suposatzen zuen deskreditua jasan behar ez izatea izan da, hau, bide batez esanda, instantzia bat baino gehiagorengan zama baita jadanik.

Ez dakigu Zuzendari berria noiz hasiko den ihardunean eta bitartean ez gara gure indarrak ahitzeko haien jokoan jauziko. Badakigu bahituri politiko garen aldetik oraindik are egoera gogorragoak jasan beharko ditugula. Izan ere, gure egoera Kolektiboaren egoeraren islada besterik ez da eta kolektibokide batzuenganako DGIPkoen krudelkeria eromenaren mugetan dago.

Jakin bezate PSOE, PNV, e.a.ekoek estatu desberdinetan zehar sakabanaturik egon arren, ahal diren era guztietan jazarri arren, gure Kolektiboak negoziazio politikoaren alde segitzen duela hori baita gure Herriaren askapenerako bide bakarra.

Besarkada solidari bat gure Herriari eta, batez ere, urte luze honetan beren elkartasuna adierazi digutenei.

GORA EUSKADI ASKATUA!

Salto del Negrotik

578 EGUN

1991.eko URRITIK 1993.eko APIRILERA

30 de septiembre: A las cero horas las 4 presas y 38 presos políticos vascos encarcelados en las prisiones de Ceuta, Tenerife-II, Salto del Negro, Mallorca y Eivissa inician una huelga de hambre que se prolonga hasta el 6 de octubre, instante en el que tomarán el relevo las presas y presos de otras prisiones.

Paralelamente la totalidad de las presas y presos políticos vascos remiten a Instituciones Penitenciarias una solicitud, en base a la legalidad vigente, de traslado a las cárceles españolas ubicadas en Euskal Herria.

Urriak 6: Gose greban dira Algeciras, Almería, Córdoba, Granada, Huelva, Jaén, Jerez de la Frontera,

Málaga, Puerto-I, Puerto-II eta Sevilla-II gartzeletan preso diren 8 emakume eta 63 gizon.

13 de octubre: Se inicia el tercer relevo en la huelga de hambre, que corre a cargo de 4 mujeres y 17 hombres encarcelados en Badajoz, Cáceres-I, Cáceres-II, Zamora y Salamanca.

Urriak 20: Presoen Kolektiboak bultzatutako gose grebaren laugarren txandaketari ekiten zaio. Txanda hartzen dute Alacant, Castelló, Valencia, Cartagena, Murcia eta Teruleko gartzeletan preso diren 5 emakumek eta 38 gizonek.

22 de octubre: Instituciones Penitenciarias ordena el traslado de tres presos políticos vascos encarcelados en Langraitz a las prisiones de Ceuta, Salto del Negro y Valencia en castigo por el apoyo unánime de los presos encarcelados en la prisión alavesa al proceso de lucha del Colectivo de presos políticos vascos, que a quedado plasmado en la presentación de solicitudes individuales por el traslado de sus compañeras y companeros a cárceles ubicadas en Euskal Herria.

Urriak 23: Frantziako presondegi batetan preso dagoen Pampi Erremundegik bertan behera uzten du aurreko bost asteetan zehar egindako gose greba.

27 de octubre: Las cuatro presas y 56 presos políticos vascos encarcelados en Albacete, Alcazar de San Juan,

Ciudad Real, Herrera de la Mancha, Ocaña-I, Ocaña-II y Cuenca asumen el quinto relevo de la huelga de hambre del Colectivo.

Azaroak 3: Euskal preso politikoen Kolektiboak bultzaturiko borroka txandakatuak bere seigarren asteari ekiten dio. Oraingo honetan A Coruña, Bonxe, Monterroxo, Ourense, Vigo, Gijón, Oviedo eta Leoneko espetxeetan preso diren bost emakueek eta 29 gizonek hartzen dute txanda.

3 de noviembre: Una funcionaria de Ocaña-II somete a un cacheo vejatorio a una mujer de 80 años, madre del presos vasco José Miguel Latasa. El preso es sancionado al protestar por dicho trato.

Azaroak 10: Borrokaren zazpigarren astearekin batera, Madrilen diren gartzeletaraino heltzen da euskal preso politikoek daramaten gose greba. Bertan dira zigorturik, Caraban-chelen eta Alcalá Mecon, 78 gizon eta emakume.

17 de noviembre: Las 11 mujeres y 17 hombres encarcelados en la prisiones de Palencia, Valladolid, Avila, Segovia y Soria realizan la octava semana de la huelga de hambre inninterrumpida e intermitente del Colectivo de presos políticos vascos.

Azaroak 20: Ocaña-I gartzelako zuzendaritzak ukatu egiten dio Jesús Mª Etxeberria euskal presoari bere aita zenaren hileta elizkizunetan parte hartzeko baimena.

24 de noviembre: Las prisiones de Santander, El Dueso, Burgos, Logroño, Daroca, Zaragoza y Huesca son el escenario de la novena tanda en la huelga de hambre, tomando el relevo dos presas y cuarenta presos políticos vascos.

Azaroak 30: Alcalá Mecon diren euskal preso politikoek gose grebari ekiten diote; zergatik eta, Unai Parot burkideak jasaten duen isolamendu baldintza latzak salatzeko.

30 de noviembre: Las presas y presos políticos vascos encarcelados en Murcia ponen fin al "txapeo" que mantenían desde inicios de julio al levantarse la situación de aislamiento de que era objeto Koldo de Marcos.

Abenduak 1: Ekin zitzaionetik hamar aste pasatu diren une honetan, Hego Euskal Herrian kokaturiko presondegietara heltzen da Presoen Kolektiboak bultzaturiko gose greba. Borrokan dira une honetan 4 emakume eta 52 gizon.

8 de diciembre: La totalidad de los presos políticos vascos encarcelados en los Estado español y francés realizan el último relevo de la huelga de hambre en exigencia de su traslado a cárceles enclavadas en Euskal Herria. Barrutik, la publicación del Colectivo, recoge un extenso trabajo de análisis sobre la política penitenciaria contra los presos vascos.

Abenduak 8: Hego Euskal Herrian kokatzen diren lau presondegien inguruetaraino heltzen da amnistiaren alde burututako beste hainbeste ibilaldi. Bilbotik abiatutako ibiltariak Basauriara heltzear ziren unean polizia indarrek bortizki erasotu zuen martxa.

9 de diciembre: Según un estudio sociológico realizado por IPES el 64% de la población vasca se posiciona por el traslado de los presos políticos vascos a cárceles situadas en Euskal Herria.

28 de diciembre: Doce mil personas en la Marcha a Herrera y medio millar en la que se dirige a París. Las Policías española y francesa practican algunas detenciones. La Guardia Civil identifica a cada una de las personas que se dirige a Herrera en interminables y sucesivos controles de carretera.

3 de febrero: Los presos políticos vascos encarcelados en Salto del Negro inician una huelga de hambre para denunciar las palizas sufridas por Jon Etxeandia y Daniel Vidal y exigiendo el reagrupamiento en un módulo, salir juntos al patio y dis-

frutar de las dos horas de patio seguidas.

Jon Etxeandia y Daniel Vidal fueron golpeados por varios funcionarios el 1 de febrero tras ser reducidos y esposados a sus camas, situación en la que permanecieron todo el día. El médico de la prisión no les atendió hasta seis días después.

Otsailak 3: Carlos Bueren Entzutegi Nazionaleko epaileak galerazi egiten die atxilotuak izan diren lau euskaldunei eurek aukeratutako abokatuen babesa izan dezaten, horretarako euren inkomunikazioa agindu eta sumarioa sekretupean jartzen duelarik. Abokatuen protesta ekiditzearren, Entzutegi Nazionaletik botatzen ditu danak.

7 de febrero: Josefa Ernaga inicia una huelga de hambre y sed para denunciar la situación de prolongado aislamiento al que es sometida en Murcia y la discriminación en el trato que se le aplica en relación a los demás presos políticos vascos encarcelados en dicha prisión, en huelga de hambre en solidaridad con su compañera.

Otsailak 14: Josefa Ernaga eta berarekin bat borrokan ziren beste zortzi preso politikoek bertan behera uzten dute euren protesta iharduera Murciako gartzelako Zuzendaritzak Gartzela Zaintze epaileak hartutako erabakiak beteko dituela egindutakoan. Izan ere aginduok, Josefa Ernagaren aldekoak, ez ziren sekulan betetzen.

Martxoak 2: Alcalátik Jaén eta Almeriako gartzelara zeramatzatela, goardia zibilek Iñigo Akaturri eta José Mª Beristain preso politikoak jipoitzen dituzte.

12 de marzo: Tres presos políticos vascos y otro del GRAPO son golpeados por un grupo de funcionarios en la séptima galeria de Carabanchel.

Martxoak 12: Joxean Agirrek egundoko jipoia jasaten du.

14 de marzo: Las Gestoras Pro-Amnistía denuncian el endurecimiento de la situación en la prisión de Almería donde desde finales de febrero los presos políticos vascos realizan un plante en protesta por el incumplimiento de los acuerdos a los que habían llegado con la Dirección del centro.

Martxoak 14: Salto del Negron diren presoek bertan behera uzten dute gose greba. 41 eguneko borrokaldia zeramatela, Zuzendaritzarekin lortutako akordioaren ostean utzi zuten presoek borroka.

16 de marzo: Los cinco presos políticos vascos en la prisión de Ceuta inician una huelga de hambre en protesta por las condiciones de absoluto aislamiento en que se encuentran desde hace seis meses, encerrados las 24 horas del día en sus celdas.

Martxoak 27: Beste preso batekin euskaraz ari zelako, Josu López hartu isolamendu ziega batetara eramaten dute funtzionariek eta bertan egundoko zurraldia ematen diote. Huelvan diren gainontzeko preso politiko guztiek txapeo bati ekiten diote.

11 de abril: Anasagasti anuncia que el Gobierno español pretende excarcelar a algún "significativo" preso político vasco para incentivar la política de dispersión.

Apirilak 13: Jasaten duen isolamendua salatzeko, gose grebari ekiten dio Almerian preso dagoen José Maria Latasak.

14 de abril: Los abogados Jone Goirizelaia e Iñaki Goioaga salen al paso de las afirmaciones de Jose Antonio Ardanza en las que daba a entender que en los últimos tres años cien presos vascos habrían quedado en libertad a través de la reinserción.

Ambos abogados afirman que desde enero de 1991 hasta abril de 1992 el número de presos políticos vascos excarcelado es de 170 en el Estado español y todos ellos tras haber cumplido integras sus condenas, encontrarse recurrida la sentencia o haberseles aplicado la libertad condicional (en base a la legalidad vigente).

Apirilak 15: Jasaten dituzten gartzela baldintzak salatu asmoz, Puerto-II gartzelan diren presoek txapeo bati ekiten diote.

21 de abril: José Miguel Latasa abandona la huelga de hambre tras ocho días al levantarsele el régimen espe-

cial que le aplicaban desde su llegada a Almería.

Apirilak 23: Gartzelako Zuzendaritzarekin akordio batetara heldu ondoren, Ceutan gose greban dire presoek bertan behera uzten dute euren borrokaldia. Gartzela Zaintze Epaitegiak Ceutako Zuzendaritzaren kontrako diligentziak zabaltzen ditu, berton hartutako erabakiak ez betetzeagatik.

24 de abril: Los presos políticos vascos en Salto del Negro inician una nueva huelga de hambre, al no cumplirse los acuerdos a los que habían llegado con la dirección de la prisión.

